



AZPEITIKO UDALAREN ETA SANAGUSTIN AZPEITIKO KULTURGUNEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, AZPEITIAN KULTURA SUSTATZEKO

Azpeitian, 2021eko otsailaren 25ean.

ELKARTU DIRA

Alde batetik, **Nagore Alkorta Elorza** andrea, Azpeitiko Udaleko (aurrerantzean, UDALA) alkate-udalburua, 2019ko ekainaren 13an Udalbatzaren izendapena dela bide, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta horrekin bat datozen gainerako arauak esleitutako eskumenak baliatuz, Udalbatzaren Osoko Bilkurako Organoak 2021ko otsailaren 2an hartutako erabakia gauzatzeko.

Eta, bestetik, Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Kooperatiba Elkartearen izenean **Xabier Aranbarri Legarda-ereño** jauna, (aurrerantzean, ERAKUNDE LAGUNTZAILEA), Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dago F75044685 identifikazio fiskaleko zenbakiarekin eta parte hartzen du ordezkari izaeran.

Bi aldeek lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZI DUTE:

I. UDALAK, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.20 artikuluekin bat etorriz, «*Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea*» arlo materialean duen eskumena.

II. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua ezartzen duenez, hitzarmenak dira administrazio publikoek zuzenbide pribatuko subjektuekin helburu erkide edo komun baterako hartutako akordioa, ondorio juridikoak dituenak.

III. 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen dituen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikulua ezartzen du lege horren eremutik kanpo geratzen direla sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, baldin eta hitzarmen horien edukia ez badago lege horretan edo administrazio-arau berezietan araututako kontratuetan.



IV. UDALA erabilera publikoko hiru kultura-ekipamenduren titularra da (San Agustin Kulturgunea, Soreasu Antzokia eta Dinamoia Sormen Gunea).

V. UDALAK prozesu publiko bat ireki zuen, hiru kultura-ekipamenduak kudeatzeko proiektu bat aurkezteko 2021-2024 aldirako.

VI. Prozesu hori amaitu ondoren UDALAK hitzarmena sinatu nahi du ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREKIN -Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Kooperatiba Elkartearekin- Azpeitian kultura sustatzeko helburu komunerako, aipatutako kultura-ekipamenduak erabiliz, honako arrazoi hauengatik

a) ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK proiektu oso, zehatz eta xede handikoa aurkeztu dio UDALARI Azpeitian kultura sustatzeko 2021-2024 aldirako.

b) ERAKUNDE LAGUNTZAILEA Azpeitian kokatutako erakunde bat da, eta urte asko daramatza UDALAREKIN lankidetzan kultura sustatzeko, kultura-jarduera ugari programatzen eta udal-interes argiko kultura-proiektuak gauzatzen.

c) ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK, gainera, urte asko daramatza hitzarmen honetan aipatutako kultura-ekipamenduen kudeaketaz arduratzen.

d) ERAKUNDE LAGUNTZAILEA, Azpeitiko Kultur Mahaiak programatutakoa betez eratu zen. Mahai hori udalerriko 20 talde edo eragilek baino gehiagok, udal-gobernuko kideek, kultura-arloko udal-langileek eta abarrek osatzen dute. Azken batean, Udalak eta udalerriko kultur eragileek osatutako Mahaiak proiektatutako erakundea da.

e) Azpeitiko Kultur Mahai hau udalerriko kultur proiektuak, programak eta jarduerak definitzeko tresna da, eta ERAKUNDE LAGUNTZAILEA tresna juridikoa da, nortasun juridikoa eta giza baliabideak eta baliabide materialak dituen erakundea.

f) ERAKUNDE LAGUNTZAILEA irabazi-asmorik gabeko kooperatiba bat da.

g) Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 156. artikulua ezartzen du Euskadiko botere publikoek beren gain hartu behar dutela, gizarte-intereseko eginkizun gisa, kooperatiba-erakundeak sustatzea, suspertzea eta garatzea.

VII. Hitzarmen hau sinatzeko elkartu diren erakundeek beharrezkotzat jotzen dute lankidetzaz-espereziarekin jarraitzea Azpeitian kultura-programa eta -jarduera berriak garatzeko.

VIII. guztiagatik, bi alderdiek proposatutako helburu komuna lortzeko, alderdiek lankidetzaz-hitzarmen hau sinatu dute, klausula hauen arabera:



KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HELBURUA.

1.- Hitzarmen honen helburua da UDALAREN eta ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN arteko **lankidetz-aoinarriak** ezartzea Azpeitian kultura sustatzeko helburu komunerako, hitzarmen honen 1. ERANSKINEAN ezarritako jarduera eta proiektuekin bat etorriz eta bertan ezarritako irizpide eta betekizunekin bat etorriz.

Modu berean, helburu amankomun hori lortzeko, eta SPAJren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48 artikulua ezartzen duenez, hitzarmen honen helburua da lankidetz-a hitzarmenari lotutako konpromesu ekonomikoen erregimena zehaztea.

2.- Hitzarmen honetatik kanpo geratzen dira obrak gauzatzea, hornidurak egitea edo alderdiek izenpetzen dituzten zerbitzuak ematea, hala badagokio, sektore publikoko kontratuei buruzko legeriarekin bat etorriz. Eragiketa horiek hitzarmen honetatik independenteak izango dira, eta aipatutako legedian ezarritako prozedura eta betekizunen arabera emango dira.

BIGARRENA.- UDALAREN LANKIDETZA.

1.- Lankidetz-a hitzarmen honen helburua benetan gauzatzeko, Udalak honako kultura-ekipamendu hauek bideratuko ditu Azpeitian kultura sustatzeko, erabilera eta ustiapena lagata:

- a) San Agustin Kulturgunea (2. ERANSKINEAN deskribatzen da kultur ekipamendu hori eta bertako inbentarioa jasotzen da).
- b) Soreasu Antzokia (2. ERANSKINEAN deskribatzen da kultur ekipamendu hori eta bertako inbentarioa jasotzen da).
- c) Dinamoia Sormen Gunea (2. ERANSKINEAN deskribatzen da kultur ekipamendu hori eta bertako inbentarioa jasotzen da).

2.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ekipamendu horiek erabili eta ustiatzean, hitzarmen honen 3. ERANSKINEAN jasotako betebeharrak eta preskripzio orokorrak bete beharko ditu.

3.- UDALAK, hitzarmen honen 1. ERANSKINEAN aurreikusitako ekintzak gauzatzeko, 2021erako Udalaren Aurrekontu Orokorrean esleitutako laguntza bat emango du, gehienez ere 150.000,00euro, 2021erako. Laguntza hori UDALAREN Aurrekontu Orokorretan esleituko da, izendun gisa, eta 1.0401.481.334.00.06 kultur dinamizazioa, lankidetz-a hitzarmena aurrekontu-partidaren kontura. Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa gehienekotzat jotzen da, eta laguntzaren azken likidaziorako 1. ERANSKINEAN aurreikusitako ekintzen exekuzioari lotuta dago.



Halaber, gehieneko ekarpen ekonomiko hori bera aurreikusten da 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldi ekonomiko bakoitzerako. Laguntzaren erregimena laugarren atalean zehaztuko da.

4.- Era berean, UDALAK Azpeitian kultura sustatzen lagunduko du, hitzarmen honen 1. ERANSKINEAN berariaz izendatutako jarduerak eta proiektuak zuzenean antolatuz. UDALAK antolatzen duen jarduera horien aseguramendua Udalaren kontura izango da.

5.- UDALARI dagokio, 1. ERANSKINEAN zerrendatzen diren proiektuak eta jarduerak gainbegiratzea, Jarraipen Batzordean adostutako jarduera-ildoek kalterik egin gabe.

HIRUGARRENA.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN LANKIDETZA.

1.- Hitzarmen honen arabera, ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK UDALAREKIN lankidetzan jardun behar du Azpeitian kultura sustatzeko helburu komunean, honako ekintza hauekin:

- a) UDALAREKIN lankidetzan, Azpeitian kultura sustatzeko proiektuak eta jarduerak antolatu eta gauzatzea. Proiektu eta jarduera horiek hitzarmen honen 1. ERANSKINEAN deskribatzen dira.
- b) Lehen aipatutako proiektuak eta jarduerak garatzea, UDALAK ezarritako irizpide eta baldintza orokorren arabera (1. ERANSKINEAN daude definituta). ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK antolatutako jarduerak haren kontura aseguratu dira.
- c) Hitzarmen honen 2. ERANSKINEAN deskribatzen diren ekipamendu guztiak kudeatzea, eranskin horretan ezarritako preskripzioen arabera.
- d) 1. ERANSKINEAN deskribatutako jarduerak eta proiektuak egiteko eta 2. ERANSKINEAN deskribatutako kultura-ekipamenduak kudeatzeko behar diren langileak kontratatzea.
- e) Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak eta proiektuak garatzeko behar diren materialak eskuratzea.
- f) Kultura-ekipamenduak ustiatzetik lortutako diru-sarrerak bideratzea 1. ERANSKINEKO proiektuak garatzeko eta gauatzeko, eta beharrezkoak diren ekarpen ekonomikoak egitea.
- g) Jarraipen-batzordeari hiru hilean behin memoria bat aurkeztea, denboratarte bakoitzean egindako jarduerak laburbiltzeko. Horretarako, hauek dira epeak:



- Urtarrila-martxoa (aurkezpena apirilean)
- Apirila-ekaina (aurkezpena uztailean).
- Uztaila-abuztua (aurkezpena irailean).
- Iraila-abendua (aurkezpena hurrengo ekitaldiko urtarrilean).

h) Ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 30a baino lehen, urteko memoria bat eta amaitutako urteko kontuen proiektua aurkeztea, urteko azken seihileko memoriarekin batera.

i) 2021, 2022, 2023 eta 2024 ekitaldietarako, ERAKUNDE LAGUNTZAILEARI erabiltzeko eta ustiatzeko lagatzen zaizkion Azpeitiko kultur ekipamenduen ohiko gastuak, funtzionamendukoak eta langileenak estaltzeko behar den zenbateko ekonomikoaren ekarpena egitea.

j) 1. ERANSKINEAN deskribatutako jarduerak eta proiektuak gauzatu, eta Azpeitiko herrian kultura sustatzea helburua duen diru-laguntza ekonomikoaren kudeaketak eskatzen dituen baldintzak betetzea.

2.- Hitzarmen honen 1. ERANSKINEAN ezarritako betekizunak eta irizpideak alde batera utzi gabe, ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK honako betebeharrak izango ditu:

a) Urteko memorian jasotzen diren datu guztiak genero berdintasunaren aldagaita sistematikoki jasotzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

b) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiak hizkera ez-sexista erabiltzea, emakumeen aurkako bereizkeria edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestea eta berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-identitate aniztasuna sustatzen dituen irudia sustatzea.

c) ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK antolatzen dituen kultur jardueretan Euskara Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantzan jasotako betebeharrak betetzea.

d) Udalak lagatako kultura-ekipamenduetako lokaletan egiten diren ostalaritza-jarduerak, hala badagokio, ostatueterako eta jolas-jardueretarako establezimenduak jartzea arautzen duen udal-ordenantzan jasotako xedapenak betetzea.

LAUGARRENA.- DIRU-LAGUNTZAREN ERREGIMENA.

Udalerrian kultura proiektuak dinamizatzen laguntzeko helbururarekin udalaren 2020-2022 dirulaguntzen Plan Estrategikoak laguntza lerro bat aurreikusi du. Laguntza hori -Udalaren kultura ekipamenduen bidez Azpeitian kultura sustatzeko udalarekin lankidetzaren proiektuak aurkezteko deialdiaren- bidez gauzatu den prozeduran sartzen da.



a) DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.

Hitzarmen honen xede den dirulaguntza zuzenean emango da, deialdi publikoa ez egiteko interes publikoko arrazoiak daudelako, azaroaren 17 38/2003 legearen 22.2.c) artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Ordainketa prozedura ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN eskaera bidez hasiko da. Eskaera hori hitzarmenak dirauen urte bakoitzeko otsailaren 1 baino lehen aurkeztu beharko da eta eskabidearekin batera urte horretarako aurreikusten dituzten ekitaldien memoria, zerrenda, eta aurrekontua aurkeztu beharko ditu. Bestetik, azaroaren 17ko 38/2003 legearen 13. artikuluan eta hura garatzen duen erregelamenduaren 887/2006 18.artikulutik 29.artikulura aurreikusitako betekizunekin bat etorritik, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

A) Ez duela diru-laguntza jasotzeko debekurik edo bateraezintasunik, eta hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da.

B) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuta.

C) Ez dela zorduna itzulketa bidezko ebazpen baten bidez, eta hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da.

Udalararen kultura sailak jardungo du prozeduraren instrukzio-organu gisa eta berari dagokio ebazpen proposamena egiteko erabili behar dituen datuak egiaztatzea.

Alkatetzari dagokio dekretuz, prozedura ebaztea. Prozeduraren ebazpenak ordainketa epeekin bat etorriko dira.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango zaio hilabeteko epean organo emaileari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikuluan xedatutakoaren arabera, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarrita, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean, 1998ko uztailaren 29ko Administrazioarekiko Auzien Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Diru-laguntza honen publizitatea Udalaren Web orrian eta Estatuko Diru-laguntzen Datu-basean egingo da.

b) LAGUNTZAREN FINANTZAZIOA, BATERAGARRITASUNA ETA ORDAINKETA.

2021eko aurrekontuan, lankidetzaren hitzarmenaren helburu den “Azpeititik Kultura Elkarlanean berritzen” proiekturako 150.000,00€ aurreikuspen zuzena egin da ondorengo gastu partidan: 1.0401.481.334.00.06 Kultura dinamizazio lankidetzaren hitzarmena.



UDALAREN ekarpen ekonomikoa erakunde laguntzaileari transferituko zaio, zenbateko ekonomikoa hauen arabera eta dagokion urtean gastua baimendu ahal izanaren baldintza etenarazlea kontuan izanik, eta ordainketak ondoren zehazten diren moduan egingo dira.

Ordainketa guztiak aurreratuak izango dira, diru-laguntzaren berezko jarduerak egin ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

Lankidetzaren hitzarmen honen baitan, azaroaren 17ko 38/2003 legeak 21.artikuluan ezartzen duenaren arabera ez dago bermearen beharrik.

Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketan bestelako diru-laguntzekin. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egoera hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio erakunde laguntzaileari.

Ordainketak:

2021. urtea:

- 75.000,00euro hitzarmena sinatu ondoren, aurrerakin gisa.
- 75.000,00 euro urriaren 15a baino lehen, aurrerakin gisa, urtarrila-ekaina seihilekoaren memoria aurkeztu ondoren.

2022. urtea:

- 75.000,00 euro martxoaren 1a baino lehen, aurrerakin gisa, 2021eko urteko memoria eta e puntuko zuriketa agiriak aurkeztu ondoren.
- 75.000,00 euro Urriaren 15a baino lehen, aurrerakin gisa, urtarrila-ekaina seihilekoaren memoria aurkeztu ondoren.

2023. urtea:

- 75.000,00 euro martxoaren 1a baino lehen, aurrerakin gisa, 2022ko urteko memoria eta e puntuko zuriketa agiriak aurkeztu ondoren.
- 75.000,00 euro urriaren 15a baino lehen, aurrerakin gisa, urtarrila-ekaina seihilekoaren memoria aurkeztu ondoren.

2024. urtea

- 75.000,00 euro martxoaren 1a baino lehen, aurrerakin gisa, 2023ko urteko memoria eta e puntuko zuriketa agiriak aurkeztu ondoren.
- 75.000,00 euro urriaren 15a baino lehen, aurrerakin gisa, urtarrila-ekaina seihilekoaren memoria aurkeztu ondoren.

c) DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.



Dirulaguntza honen bidez finantza daitezkeen gastutzat hartuko dira I.ERANSKINEAN jasotako memoriak deskribatzen dituen kultur jarduerak. Jarduera horiek, lankidetzaz hitzarmenak irauten duen urte bakoitzeko laguntza eskaerarekin batera aurkeztutako memorian zerrendatzen direnak izango dira eta ekintza horiei lotutako gastuak hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat.

d) ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Oro har, ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK Fundazioak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Zehazki, betebehar hauek bete beharko ditu:

A) Diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan, baldintzetan eta epean egitea diru-laguntzaren xede den jarduera, eta behar bezala ebaluatzeko behar diren datu kuantitatiboak ematea.

B) Jasotako funtsen aplikazioaren kontrola eta jarraipena egitea.

C) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duen jatorrizko dokumentazio guztia gordetzea, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan badaiteke.

D) Diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla.

e) ZURIKETA EPEA, AGIRIAK

Lankidetzaz hitzarmen honen baitako diru-laguntza jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zurituta izan behar du ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK. Horretarako, diru-laguntza emateko helburua bete duela zurituzeko eta jasotako dirulaguntza zertan erabili den justifikatzeko epea hurrengo ekitaldiko urtarrilarren 31n amaituko da.

Likidazioan, ezingo da hitzarmen honetan jasotako helburuetan gainfinantzaketa eduki eta horrela suertatu ezker, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azpeitiko Udalari.

887/2006 Errege Dekretuaren 72. artikulua arabera zuriketa justifikazio-kontu bidez egingo da eta honako dokumentuak eta edukia izango ditu:

1. Diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketaz memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:



A) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, honako hauek adierazita: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, izandako desbideratzeak adieraziko dira.

B) Merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten fakturak edo dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotakoak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

C) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda zehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

D) Diru-laguntzen Lege Orokorren 31.3 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak, hala badagokio.

F) Itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak itzuli beharra ekar lezake berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

BOSGARRENA.- HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA.

1.- Lankidetzeta-hitzarmen hau behar bezala betetzen dela zaintzeko, Jarraipen-Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori sei pertsonak osatuko dute: UDALAK proposatutako hiru pertsonak eta ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK proposatutako hiru pertsonak. .

2.- Jarraipen Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Lankidetzeta-hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen desadostasunak ebaztea, erabakitakoen betearazpenari edo interpretazioari dagokienez..

b) 1. ERANSKINEKO jarduerak eta proiektuak interpretatzea eta zehaztea (2021eko ekitaldia).

c) Jasotako proposamenak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.

d) 2022, 2023 eta 2024 ekitaldietako jarduerak eta proiektuak definitzea, Azpeitiko Kultur Mahaiaren proposamenekin bat etorritz.

e) 1. ERANSKINEAN jasotakoei jarduera edo proiektu berriak gehitzeko beharra baloratzea.

f) Hiru hilean behin, hitzarmen hau gauzatzean garatutako jarduera ebaluatzea.



g) Urtearen, ikasturtearen eta hiruhilekoaren hasieran ezarritako helburuak eta lan-plana bete diren baloratzea.

h) Barne-funtzionamenduko arauak onartzea.

3.- Udalak izendatutako pertsona izango da Batzordeburua. Lankidetzahitzarmenaren jarraipena egiteko beharrezkoa den guztietan bilduko da Jarraipen Batzordea, alderdi sinatzaileetako edozeinek eskatuta.

4.- Bilkura bakoitzean aztertu beharreko gaiaren arabera beharrezkotzat jotzen diren pertsona guztiak bertaratu ahal izango dira. Azpeitiko Kultur Mahaiko ordezkariak parte hartzera gonbidatuko dira, garatu beharreko jardueren zehaztasuna, ezarritako helburuen betetze-mailaren ebaluazioa eta antzeko gaiak jorratzen diren saioetan.

5.- Erabakiak kideen gehiengoaren aldeko botoarekin hartuko dira, eta ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK izendatzen duen pertsonak jardungo du idazkari gisa.

6.- Jarraipen Batzordeak berak funtzionamendu-araubide berezirik erabakitzen ez badu, Batzordearen funtzionamendu-araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da.

SEIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA.

UDALA eta ERAKUNDE LAGUNTZAILEA izango dira kultur-ekipamenduen erabiltzaileen datu pertsonalen tratamenduaren erantzuleak, bai eta lankidetzaraubidean egiten dituzten kultura-jardueren erantzuleak ere, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta arlo horretan aplikatzekoa den gainerako ordenamendu juridikoan xedatutakoaren arabera arautuko dira. (4. ERANSKINEAN bi erakundeek elkarrekiko dituzten konpromesua jaso dira)

ZAZPIGARRENA.- JARDUEREN ETA PROGRAMEN HEDAPENA.

1.- Hitzarmen honen 1. ERANSKINAREN babesean ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK antolatzen duen edozein jardueraren berri ematean, berriaz adieraziko da UDALA erakunde laguntzailea dela – Ez antolatzailea –. Horretarako, UDALAK ERAKUNDE LAGUNTZAILEARI bere irudi korporatiboa erabiltzeko jarraibideak emango dizkio.

2.- Era berean, UDALAK berak hitzarmen honen 1. ERANSKINAREN babesean antolatzen dituen jarduerak hedatzean, ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK laguntzaile dela adieraziko da berriaz.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.



1.- Hitzarmen hau 2021eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta 2024ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du.

2.- Lankidetzaz Hitzarmena onartzeko prozeduran jasotako Oinarriak, eta modu berean SPAJren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek hitzarmena beste lau urtez luzatzea erabaki dezakete.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta aplikatzean sortzen diren auziak konpontzeko izan ditzakeen ondorioak izango ditu.

HAMARGARRENA.- SUNTSIARAZTEA.

1.- Alderdi sinatzaileetako edozeinek hitzarmen hau betetzen ez badu, hitzarmena bertan behera geratuko da, dagokion aldeari gutxienez hilabete lehenago idatziz jakinarazi ondoren.

2.- Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak izango dira bertan jasotako klausulak ez betetzea, bai eta indarrean dagoen legeriak hitzarmenaren izaeraren ondorioz jasotzen duen beste edozein klausula ez betetzea ere.

3.- Nolanahi ere, alderdiek konpromisoa hartzen dute salaketa jakinarazteko unean hasitako ekintzen garapena amaitzeko.

HAMAIKAGARRENA.- ALDAKETAK.

Hitzarmen honen edozein aldaketa bi erakundeetako dagozkien organoek onartu beharko dute.

HAMABIGARRENA.- EZTABAIDAK EBAZTEA.

Hemen hitzartutakoaren ondorioei, interpretazioari, aldaketari, ebazpenari edo betetzeari dagokienez alderdien artean sor daitezkeen eztabaidak ebazteko, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko da berariaz, jurisdikzio hori administrazio-arlokoa baita.

HAMAHIRUGARRENA.- LEGE-ARAU BIDEA.

1.- Hitzarmen honek bete egin behar ditu administrazio-hitzarmenak eta aplikatzekoak diren gainerakoak erregulatzen dituzten arauak, eta, bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua eta



Azpeitiko Udala

Kulturwz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

harekin bat datozenak, eta, agindu horietan xedatu gabeko guztian, Kode Zibilaren betebeharren arloko xedapenak.

2.- Lankidetzaren Hitzarmen honen baitan jaso den diru-laguntza, hitzarmen honetan xedatutakoaz gain, azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lege horren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Lankidetzaren hitzarmen hau Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzetarako Ordenantza Orokorraren baitan dago. Bere izaera zuzeneko diru-laguntza izenduna da, eta 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan aurreikusi da (Udalbatzak 2021ko otsailaren 2an).

Aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, bi alderdiek sinatuko duten agiri hau sinatzen da, bi alderdiak eta ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean, eta ale bat alderdi bakoitzaren esku geratzen da.

Azpeitiko Udaleko alkate-udalburua,
NAGORE ALKORTA ELORZA

Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea
Kooperatiba Elkartearen aldetik,
XABIER ARANBARRI LEGARDA-EREÑO



Azpeitiko Udala

Kultur*wz*
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

**1. ERANSKINA
JARDUEREN EDO PROIEKTUEN ZERRENDA
JARDUEREN EDO PROIEKTUEN IRIZPIDEAK ETA ESKAKIZUNAK**

**2. ERANSKINA
SAN AGUSTIN KULTURGUNEAREN DESKRIBAPENA ETA INBENTARIOA
SAN AGUSTIN KULTURGUNEAREN DESKRIBAPENA ETA
INBENTARIOA
DINAMOA SORMEN GUNEAREN DESKRIBAPENA ETA INBENTARIOA**

**3.ERANSKINA
LAGATAKO KULTURA-EKIPAMENDUEN ERABILERARI ETA
USTIAPENARI BURUZKO ARAUDIA ETA BETEBEHARRAK**

**4. ERANSKINA
DATUEN BABESA**